

Athletic Club

Experience



**BILBAO
BIZKAIA**
be basque

Izan zaitez
aparteko
zerbaiten parte

- Athletic Club Museoa, talde desberdin baten historia paregabea
- Match Day Experience: pasio zuri-gorri bete-betea
- Euskal gastronomiarik onena estadioan bertan
- San Mames, futbolaren katedralaren elezaharra

Turismojasangarriago
eta arduratsuagoaren
alde

GARAPEN
TURISMO GASTRO
HEL BURUAK



BILBAO BIZKAIA

Athletic Club Experience



Txartel honekin dirua aurreztuko duzu eta errazagoa izango da Bilbao Bizkaiko egonaldia planifikatzea, bai, garraio publikoan, bai museoetarako, ikuskizunetarako eta abarretarako sarreretan, dendetan eta aisialdiko bestelako espazioetan. Eskatu Bilbao Turismoko bulegoetan edo webgune honetan:

www.bilbaobizkaiaecard.com

Erreserbatu **BILBAO
BIZKAIA** .eus

reservabilbaobizkaia.eus/eu



Edizioa: 2023ko EKAINA / Bigarren argitalpena

Argitaratzailea: Bilbao Bizkaia be Basque

Argazkiak: Bilbao Turismoko artxiboak, Bizkaia Turismo, Basquetour, Bell, Gonzalo Azumendi, Athletic Club eta beste egile batzuk.

D.L.: BI-01239-2021

Asko gustatuko zaizu

EZAGUTZEA

4

Parekorik gabeko taldea izatea
magikoa da
Britainiar uharteetatik Bilbora
Gure nortasunaren marka
Futbolaren Katedrala
Gutxi batzuen esku dagoen palmaresa
Marka uzten duten futbolariak
Athletic Club emakumeen taldea: lehoiak
elitean
Gabarra ilusio zuri-gorriaren ikur
Himnoa



Hunkitu egingo zaitu

BISITATZEA

16

San Mames, pasioz betetako agertokia
Athletic Club Museoa
Bisita gidatua
Match Day Experience
San Mamesen zaporea



Poztu egingo zaitu

JAKITEAK

24

Lezama talentuen harrobi
Arkua historiaren ikur



Seduzitu egingo zaitu

PASEATZEA

26

Bizikidetza historikoa hiriarekin
Nola bizi da partida egun bat?



Zirrara eragingo dizu

ORDEZKATZEA

30

Athleticzaleak munduan
barrena



Asko gustatuko zaizu

EROSTEA

32

Athletic Clubaren koloreak
Nortasuna diren produktuak
Internetetik etxera



Liluratu egingo zaitu

BERTARATZEA

36

Meeting & Enjoy
San Mames VENUE
Rock & Gol



42

QUIZATHLETICPEDIA

Zenbat dakizu Athletic Clubari buruz?

44

TOPBILBAO

Xehetasunik galdu gabe orientatu ahal izateko

46

INFORMAZIOPRAKTIKOA

Helbideak, telefono zenbakiak, estekak...
Jakín ezazu den-dena

Parekorik gabeko taldea izatea...

MAGIKOA DA

Hona hemen **Bilbao Bizkaiaren enbaxadorerik onena**, hiria bisitatzera zatozten pertsona guztientzako anfitrioi ezin hobea. **Athletic Club** munduan parekorik ez duen kluba da. Futbol talde berezia, nazioarte mailako aitorpena lortu duten zaleekin eta goi mailako futbol zelaiarekin. Duela ehun urte baino gehiago sortu zen, eta beti egon da lehen mailan; elastiko zuri-gorria daramaten jokalaria euskaldunak dira eta, bereizgarri hori dela medio, parekorik gabeko taldea da, beste guztiekiko desberdina. Taldearen historiari buruz gehiago jakin nahi baduzu, zatoz **Athletic Club Museoa** bisitatzera eta taldearen lorpen guztiak zuzen-zuzenean ezagutuko dituzu.

<https://sanmames.athletic-club.eus/museo/>

BRITAINIAR UHARTEETATIK BILBORA

Athletic Clubi buruz hitz egitea tradizioari buruz hitz egitea da, herriarekin duen lotura sendoz hitz egitea, baina... Ba al zenekien Erresuma Batuko klubak erreferentzia gisa hartuta fundatu zela? XIX. mendean, Bilbao Bizkaiak bizi zuen industrializazio bete-betean, langile britainiarren olde izugarria iritsi zen Bilbora bertan lan egiteko, eta langile haiekin batera orduan ezezaguna zen kirola ere iritsi zen gureru: futbola. Handik urte gutxira, Erresuma Batuan ikasten egondako gazte bizkaitar batzuek **Athletic Club taldea sortzea bultzatu zuten 1898an**. Une hartan hasi zen sortzen klub honen historia ospetsua.



¡ALIRON! ¡ALIRON! ¡el Athletic Campeón!

Athletic Cluben garaipenak ospatzeko leloa da. XIX. mende amaierako meatzari bizkaitarrek All Iron (dena burdina) kartela jartzen zioten mineral puruz betetako orgei, eta pozez oihukatzen zuten: *Aliron! Aliron!*




GURE NORTASUNAREN MARKA

Bada zerbait Athletic Club gainerako taldeetatik bereizten duena: taldearen filosofia. Geure horrekin identifikatuta sentitu nahi dugunean begiratu beharreko ispilu bihurtu da talde hau. Eta bere historiak hala ziurtatzen du. **120 urte baino gehiagoko ibilbidean** lehen mailan egon da beti, hainbat titulu irabazi ditu eta estatuko zein nazioarteko finalak jokatzen jarraitu du. Azaldutakoa, eta Euskal Herrian jaiotako edo lurralde honetako klubetan hazitako neska eta mutilekin jokatzeko ideia, kirol honetan gero eta guxtiago ikusten diren balioak dira.



Futbola bizitzeko modu horrek ez du Athletic Club taldea ahultzen; aitzitik, are sendoago egiten du. Bilbao Bizkaian ez dago etxean Athletic Clubeko elastikoa txiki-txikitatik izan ez duen haurrik, edo familiarekin **San Mames** zelaira joan ez denik. Partida egunetan olatu zuri-gorriak hiriko kaleak hartzen ditu eta San Mamesek, *gure lehoien sehaskak*, gogor egiten du orro *Athleticen alde*. Harrotasun horrek zaleen eta taldearen arteko batasuna suntsiezina izatea dakar, eta erakundeak lurraldearekin eta hiriarekin egiten du bidean aurrera.



Futbolaren Katedrala

San Mames mundu osoan parekorik ez duen futbol zelaia izan da, eta oraindik ere bada. Arku bat klubaren ikono bihurtu zuen zelai bakarra da. Jokalariari zor zaion errespetua eta partidak bizitzeko pasioa direla medio, zelai mitikoa da nazioartean. 1913an inauguratu zen, eta 100 urte geroago, eta leku berean, gaur egungo zelaia eraiki zen. Baina, ba al dakizu izena zeri zor dion?

Athletic Clubaren zelaia Bilboko Erruki Etxearen alboan eraiki zen, eta bertan Mami santua gurtzen zen, hain zuzen ere, kristaua izateagatik lehoietara jaurti zuten santua, bizirik jan zezaten. Hortik dator klub bizkaitarreko jokalariei *lehoi* deitzea. San Mames zaharrak zeukan mistikak *katedral* bihurtu zuen.



San Mames

GUTXI BATZUEN ESKU DAGOEN PALMARESA

GIZONAK



8 LIGA



24 KOPA



3 SUPERKOPA



EVA DUARTE KOPA 1

EMAKUMEAK



5 LIGA



Marka uzten duten futbolariak

U rteen poderioz futbolaren munduan termino ugari sortu dira, besteak beste, zaleak, oihuak eta garaikurrak izendatzeko. Horren haritik, Athletic Clubaren historia eta taldeko futbolarietako batzuek utzi duten legatua hain da garrantzitsua, ezen ligan denboraldi guztietan banatzen diren garaikurretako batzuek klub zuri-gorriko jokalaririk historikoen izenak baitaramate, tartean **Pitxitxi sariak** edo **Zarra sariak**.

Rafael Moreno Aranzadi, *Pitxitxi* ezizenez ezagutu zena, 89 neurketa ofizialetan 83 gol sartu zituen Athletic Club taldeko aurrelaria izan zen. Horregatik, 1953. urtean Marca kirol egunkariak Espainiako Ligako goleatzaile nagusia saritzeko garaikur bat sortzea erabaki zuenean, Pitxitxi izena jartzea erabaki zuen.



Baina golei buruz hitz eginez gero ezinbestean **Telmo Zarraonaindia** aipatu behar dugu. Zarrak orotara 335 gol sartu zituen 354 partidatan, eta Athleticen eman zituen hamabost denboralditan liga bat, bost Kopa, Eva Duarte Kopa bat irabazi zituen eta sei aldiz izan zen kategoriako Pitxitxi. Gaur egun, ligan gol gehien sartzen dituen jokalaririk nazionalak sari hori jasotzen du.




Pitxitxi edo *Zarrari* buruz gehiago jakin nahi baduzu Athletic Club Museoa bisitatzeraz gongratatzen zaitugu.

<https://sanmames.athletic-club.eus/museo/>



Telmo Zarraonaindia



Iribar
18 denboraldi/614 partida



Erika Vázquez
16 denboraldi/400 partida/261 gol (aktiboan)



Etxeberria
15 denboraldi/ 514 partida/ 104 gol



Vanesa Gimbert
8 denboraldi/ 222 partida/ 35 gol (aktiboan)



Susaeta
12 denboraldi/ 507 partida/ 56 gol



Gainza
21 denboraldi/ 494 partida/ 152 gol



Iraia Iturregi
15 denboraldi/ 402 partida/ 64 gol



Guerrero J.
14 denboraldi/ 430 partida/ 116 gol




Ainhoa Tirapu
15 denboraldi/358 partida




Iraola
12 denboraldi/ 510 partida/ 38 gol



Orue J.M.
17 denboraldi/ 481 partida/ gol 1



Eli Ibarra
15 denboraldi/ 413 partida/ 111 gol



Aduriz A.
12 denboraldi/ 407 partida/ 172 gol



Dani
12 denboraldi/ 402 partida/ 199 gol

Athletic Club EMAKUMEEN TALDEA

LEHOIAK ELITEAN

14

Athletic Club taldearen handitasuna ez da soilik gizonezkoen taldean gertatzen; aitzitik, emakumeen taldea loratuenetako bat ere bada. 2000. urte hasieran sortu zenetik, emakumeen taldearen indarra agerian geratu da. 2002 eta 2007 artean lau liga lortu zituen eta azkenari esker, 2015-2016 denboraldian, talde zuri-gorria **garaikur gehien lortu dituen kategoriako taldeetako bat da**.

Txapeldunen Liga bost aldiz jokatu du, eta Erreginaren Koparen bi finaletan lehiatu da. Partidak girotu eta kolorea jartzen duten zaleek ditu bereizgarri, eta Europa mailan bertaratze markak hautsi ditu. Horren adibide gisa, 2019an 48.121 pertsona bertaratu ziren Atlético de Madrid taldearen aurkako Erreginaren Kopako partida bat ikusteko. Zalantza izpirik gabe, Lezamako instalazioetako bigarren zelaira ihes egiteko eta nesken jokoarekin gozatzeko arrazoi bikaina da.

Gabarra ILUSIO ZURI-GORRIAREN IKUR

Gure taldea hainbat arrazoiengatik da paregabea, eta faktore horietako bat arrakastak ospatzeko modua da. Beste talde batzuek autobus batera igota edo leku sinbolikoren batean ospatzen dituzte garaipenak. Athletic Club taldeak, berriz, **Bilboko itsasadarrean barrena ospatzen du**. Gabarra oinarri laua duen itsasontzia da, eta Nerbioi ibaia zeharkatzen du talde zuri-gorriak titulu bat lortzen duen aldiro. Ohitura 80ko hamarkadaren hasieran sortu zen. Horren ondorioz, kaleak txiki geratzen dira eta kolapsatu egiten dira. Horrelako jaietan futbola, arrakasta eta tradizioa nahasten dira; hiri guztia inplikatzeko da eta oroimenerako irudi gogoangarriak sortzen dira. Harrezkero, ontzia **Itsasmuseum museoan** daukagu zain, lehenbailehen Nerbioiko uretara itzultzeko ilusioarekin.



A
GOOD
IDEA

Zatoz **ITSASMUSEUMA** bisitatzera, Euskalduna Zubiaren azpian, eta egin ezazu ibilbide gidatu interesgarria bertan. Bisita erreserbatzeko sartu itsasmuseum.eus atarira



HIMNOA

Athletic, Athletic, Athletic eup!
Athletic, gorri ta zuria
Danontzat zara zu geuria
Erritik sortu ziñalako
Maite zaitu erriak
Gaztedi gorri-zuria
Zelai orlegian
Euskalerriaren erakusgarria.
Zabaldu daigun guztiok
Irrintzi alaia:
Athletic, Athletic
Zu zara nagusia
Altza Gaztiak
Athletic, Athletic,
Gogoaren Indarra.
Aritz zarraren enborrak
Loratu dau orbel barria.
Aupa mutilak!
Aurrera gure gaztiak!
Bilbo ta Bizkai guztia
Goratu bedi munduan
Aupa mutilak!
Gora beti Euskalerria!
Athletic gorri-zuria geuria.
Bilbo ta Bizkai guztiak gora!
Euskaldun zintzoak aurrera!



15

SAN MAMES

Pasioz betetako agertokia

ATHLETIC

Hona hemen... Parekorik ez duen klubaren neurriko zelai handia. Munduan zehar futbol zelai ugari daude, baina San Mamesen modukoak oso gutxi edo bat ere ez. Zelai gutxitan ikusten da futbola Athletic Clubaren etxean bezala. Zelaiko zaratak, giroak eta mistikak gainerakoetatik bereiztea dakar; harmailen diseinuari esker, zaleak joko zelaitik ahal bezain hurbil egoten dira. Hiriaren ikono hau Bilbao Bizkaiko erakargarritasun handienetako bat da. Bertako giroak, pasioak eta aurkariarekiko errespetuak mundu mailako erreferente bihurtzea ekarri dute. San Mames zaharraren lekukoa hartzea ez zen betebeharrak erraza izan, baina eraikinaren arkitektura modernoa eta berritzailea zein kokapena kontuan hartuz, zelai berrian zaleek benetako futbol giroa arnasten dute. Fatxadaren argiztapena da, zalantza izpirik gabe, zelaiaren izaeraren ezaugarrietako bat; egunero ikus daiteke 22:00etatik 22:30era udan eta 20:00etatik 20:30era neguan hiriko hainbat txokotatik. Edukierari dagokionez **53.331 pertsona** har ditzake barruan, eta 2013an inauguratu zenetik **munduko kirol eraikinik onenaren saria jaso zuen 2015ean**, World Architecture Festival jaialdian, eta Venue of the Year 2017 aipamena, berriz, World Football Summit egitasmoan.



A
GOOD
IDEA!

Zelaiari argazkiak ateratzeko leku onenetako bat Zorrozturreko uhartea da. Eta kanpoaldea gauez ikustea ideia bikaina da iluminazio animatu eta ikusgarriaz gozatzeko.

Athletic Club Museoa

Gogoratu zer zaren, eta erakutsi maite duzuna

Zatoz klub ospetsu honen historian barrena, kirolaren munduan parekorik gabeko balio eta filosofia dituen. Bidaia zoragarria da klub bixi baten historian zehar. Ezagut ezazu mende bat futbol baino gehiago garai guztietako jatorrizko piezak batu dituen bilduma erreferentean; Athletic Club taldearen handitasunaz gozatu eta ikastea ahalbidetuko dizute. Talde zuri-gorriaren museoan irudiak, bideoak eta garaikur aretoak nonahi aurkituko dituzu.

Abangoardia museoa da, elkarrekintza maila handiarekin eta klub honen 100 urte baino gehiagoko historia biltzen du. Athletic Club taldearen berezitasunak bisitatzeko espazio zabala da, 1.400 m²-koa, historia zuri-gorriaren balentriak ezagutu eta horretan barneratzeko.

Horren izaera berezia duen klub baten bidea jarraitzea zirrargarria da. Museoan hainbat panel eta bideo aurkituko dituzue kluba nola sortu zen eta azken urteetan izan duen bilakaera deskribatu eta kontatzeko. Espazio honetan San Mamesko harmaila zahar batean eseri eta ikus-entzunezko batekin gozatzeko aukera izango duzu, klubaren pilare handiak jaso dituen gune gorria zeharkatu ahaliko duzu edo garaikurren aretoa "in situ" ikusi ahaliko duzu, besteak beste. Klubaren artxibotik aukeraturako 900 bideo eta 1000 pieza baino gehiago, legatu kolektiboaren balio nabarmentzeko.

Ibilbidea egiteko sarrera Athletic Clubaren webgunean edo futbol zelaian aurrez aurre eros daiteke (19 eta 20 atean artean).

<https://sanmames.athletic-club.eus/museo/eu/>



Museoa mugikortasun urriko pertsonentzat egokituta dago.

BISITA GIDATUA

Zatoz Katedralaren erraiak ezagutzera

Bizi ezazu **San Mamesen** emozioa zeure azalean: futbola gainditzen duen sentimendua da. Athletic Club taldearen etxearen barruko txoko intimoenak barrutik ezagutzeko eta bizitzeko aukera bakar eta paregabea da. Athletic Clubaren milaka partidetan bizitako sentazioak aurkitu eta berdegunearen usaina usaintzea gustatzen bazaizu, futbol zelaia erreaietatik **tour** bat egitea baino modu hoberik ez dago.

Bisita honi esker, bi ordu pasatxoko tartean futbolezt betetako mende bat baino gehiago ezagutu ahaliko duzu. Ibilbidea **San Mamesko tapizean** hasiko da, bisitari orok zelaian bertan emozioa sentitu ahal izateko. Abiapuntu horretatik ezin hobeto imajinatu ahaliko duzu futbol jokalariek zer sentitzen duten 53.000 pertsonatik gora haien alde oihuka entzuten dituztenean.

Horrez gain, **prentsa aretoa** ere ezagutu ahaliko duzu. Komunikabideek lan egiteko erabiltzen duten espazio bat da. Jarraian, bisita honen punturik erakargarrienetako bat bisitatu ahaliko duzu: futbol zelaira joateko taldea prestatzen den tokia, **aldagelak**.

Intereseko beste puntu bat **aldagelen tunela** da. Kolore gorri biziko korridorea da, eta bertan futbol jokalariek zelaira salto egin aurretik sentitzen dutena sentitu ahaliko duzu, baita baloia jokoan jartzeko eskaileretan gora egiten duten unea ere. Horrez gain, Pitxitxi mitikoaren bustoaren alboan zein **aulkian** argazkia atera ahaliko duzu.

Bukatzeko, zelaiko **solairu noblera** igotzeko aukera izango duzu eta erdiguneko eraztunetik ikuspegiarik onena izango duzu joko zelaia, ohorezko palkoak eta San Mames BAT ezin hobeto ikusteko. Gainera, ibilbidetik futbol zelaiko **dendara** irits gaitezke, opari bat egiteko ideia izanez gero.

A
GOOD
IDEA!

BILBAO
BIZKAIA



Zelaia



Aldagelen tunela



Prentsa Aretoa



Aldagela



San Mames BAT

MATCH DAY EXPERIENCE

Bertan futbol partida batean egotea baino modu hoberik ez dago **Athletic Club** eta **San Mames** zelaiaren esentzia aurkitzeko.

Ziur beste zelai eta zale batzuk ezagutzen dituzula, baina Athletic Clubek San Mamesen jokatzeko duen partida batean sentituko duzuna berezia izango da. Zaleek errespetu handia dute eta beti gozatzea eta partekatzea bilatzen dute.

Senti ezazu pasio **zuri-gorria** harmailatik

Klubak harmailetako sarrerak zaleen esku jartzen ditu, eta online zein zelaiko leihatiletan eros daitezke neurketaren asteburuan bertan. Athletic Club jokatzeko ikustea ospatzeko modukoa baita beti.

BANAKETA:

Online salmenta:
proticketing.com/athleticclub_web

SALMENTA FISIKOAK:

- San Mames zelaiko leihatilak*
Ostiralean, 17:30etik 20:00etara.
Larunbatetan, 10:30etik 13:30era eta 17:30etik 20:00etara.
Igandeetan (edo partida egunetan), 10:30etik 13:00etara.
Eta norgehiagoka hasi baino 2 ordu lehenagotik.

*Kontsultatu partida bakoitzaren ordutegia webgunean.

www.athletic-club.eus



Futbola eta askoz gehiago hemen:



SAN MAMES BAT

San Mames BAT kalitate goreneko zerbitzuez gozatzeko pentsatutako tokia da, erdiguneko eraztunean kokatutakoa; nazioarteko prestigioa duen sukaldaritza eta esperientzia erabat desberdinaz gozatzeko pentsatutako tokia da, diseinu ireki eta zabala duen kokapen paregabea.



Partidaren aurreko giroa bizitzeko aukera ematen du, ordu eta erdi lehenagotik, eta partida bukatu ondorengo ordubetea "hirugarren zatiaz" gozatzeko aukera ere ematen du, zelaiaren berotasuna sentitu eta jokoaren ikuspegi bikaina izateaz gain. Atal gastronomikoa nabarmendu behar da, Michelin izarrekin saritutako jatetxe bizkaitarrek osatzen baitute, tartean Azurmendi (3*), Nerua, Andra Mari, Etxanobe, Zarate, Zortziko eta Boroa. Horrez gain, erdiguneko eraztunean partida zuzenean eskaintzen duten pantailak ere badira, errepikapenekin, Katedralaren berdegunean gertatzen den guztia jarraitu ahal izateko.

Informazioa eta sarrerak:
www.sanmamesbat.eus





SAN MAMESEN ZAPOREA

Geure lur honetan, eta San Mames bezalako giro mitiko honetan, ezin da zelaiaren neurriko eta publiko guztiari irekita egongo den gastronomia faltatu.

Fernando Canales sukaldari bilbotar prestigiotsuak zuzenduta, lehen solairuan kokatutako luxuzko jatetxe honetan aukera paregabea izango duzue, zelaiaren ikuspegi zuzena izatearekin batera, mundu osoan zehar goraipatutako euskal sukaldaritzaren ospetsua zuzen-zuzenean ezagutzeko.

Informazioa eta erreserbak:

www.sanmamesjatetxea.com



JATETXEA | RESTAURANTE

SAN MAMES
BY FERNANDO CANALES



LA
CAMPA
DE
LOS
INGLESÉS

La Campa de los Ingleses gastronomia proposamen informal eta zabala eskaintzen duen sports bar bat da, informala baina kalitatezkoa, Bilboko pintxo taberna tipikoak erreferentzia gisa hartuta: eguneko menua eskaintzen du astean zehar eta menu berezia asteburuetan. Badago pikatzeko errazioak eta platerak dastatzeko aukera ere, zelaiari begira.

Informazioa eta erreserbak:

www.lacampadelosingleses.com



Geuria gure taldeen partidak jarraitzeko topagune bat da, baita beste kirol batzuen emaldiak ere, edota kontzertuak, DJen saioak, e-sport edo vermut saioak. Entretenimenduarien, kirolaren eta gastronomiaren kontzeptu berritzailea da, lotura komun baten bitartez: San Mames Bilbo hiriaren identitatearen ikur gisa.

Informazioa eta erreserbak:
www.geuriasanmames.com





LEZAMA

Talentuen sehaska

24

Athletic Clubari buruz hitz egitea Lezamari buruz hitz egitea da, **bertan prestatzen baitira etorkizuneko lehoiak**. Izen bereko udalerrian kokatutako eskola abangoardista izan zen bere garaian, eta inspirazio gisa baliatu dute bestelako kirol instalazio handi batzuek, harrobiaren ikur gisa. Askok miresten eta imitatzen duten ikastetxe honek bertako jokalariek zaintzen ditu eta **filosofia berezia harrotasunez bizi duen klubaren balioetan hezten ditu pertsonak**.

1971. urtean eskola txiki gisa hasi zen, eta gaur egun mundu mailako inbidia da, kirolean aplikatutako punta-puntako teknologiagatik eta kirol esparruan esperientzia eta titulazioa duten profesionalengatik. Dagoeneko egin duen **50 urteko ibilbidean** belardi horretatik ia 10.000 jokalarik igaro dira, eta horietatik 192 gizon eta 56 emakume lehen taldera iritsi dira.

Faktoria zuri-gorria bisitatzea aitzakia bikaina da gizonen zein emakumeen lehen taldearen entrenamendua ikusteko, autografo bat lortzeko eta munduko kirol akademia emankorrenetako bat osatzen duten 13 hektareatan gozatzeko.

Futbola baino gehiago

Gaur egun Lezama Athletic Clubeko lehen plantillak hartzen ditu, emakumeen zein gizonezkoen taldeetan, baita oinarritzko futboleko hamazazpi talde ere; lehen taldera iritsi aurretik jokalariek gaintitu beharreko aurreko koskak dira.



Bisita Lezamara

Klub bitxi honen errailetara iritsi zarela esan ahal izateko ezinbestekoa da Lezamako kirol instalazioak bisitatzea. Horretarako, hiru modu dituzu:



TRENA/METROA

Euskotren/Metroa – 3. linea (Azken geltokia: Lezama); geltokitik bost minutura oinez.



BUS

Bizkaibus 3223 linea Bilbo-Larrabetzu. Geltokia: La Cruz auzoaren eta Lezamako erdigunearen artean.



ERREPIDEZ

Lezamara autoz iristeko bi bide daude, helmuga puntuaren arabera:

1- Lezama erdigunera iritsi ondoren, noranzkoa aldatu behar da biribilgunean eta, metro gutxira, aipatutako instalazioetara sartzeko bigarren sarrera hartu.

2- Udalerria zeharkatu ondoren iritsiz gero, ostera, biribilgunea atzean utzi beharko duzu eta eskolara iristeko sarrera noranzko berean aurkituko duzu. Instalazioen barruan lur azpiko aparkalekua dago.

Arkua historiaren ikur

Ba al zenekien San Mames zaharrean arku bat zegoela? Hasieran elementu hark metalezko egitura iraultzaile gisa funtzionatu zuen, tribuna berria zutaberik ez izatea ahalbidetu baitzuen; ondoren,

Athletic Clubaren ikur eta enblema bihurtu zen. Zelai zaharra eraitsi zenean, klubak babesa bilatu zuen eta gaur egun Lezamako bigarren zelaiaren albo batean dago.



25



BIZIKIDETZA HISTORIKOA **HIRIAREKIN**

Athletic Clubaren historian Bilbao beti izan da protagonista, hiriko kale eta eraikinekin. Hortaz, Athletic Clubaren historiari buruz gehiago jakin nahi baduzu, Bilbon bertan bisitatu behar dituzun zenbait puntu aurkeztuko dizkizugu...

San Anton eliza eta zubia

Bilbo ez litzateke ezer izango San Anton eliza eta zubia gabe. Elizak hiria jaio zen tokia adierazten du, eta zubiak, berriz, sarbidea; horregatik, **bi figurak Athletic Clubaren eta Bilboko ezkutuaren parte dira**. Hiriaren enblema honek garrantzia historikoa izan du, Bizkaiko merkataritza Gaztelarekin lotzeko nahitaezko pasabidea baitzen. Horrez gain, itsasadarra zeharkatzen zuen zubi bakarra izan zen hainbat mendez.



San Anton eliza eta zubia

Hiriko **alde zahar**rean dago, nahitaez bisitatu beharreko inguru ikusgarri batean. Leku ezin hobea da itsasadarri argazkiak ateratzeko, Zazpi Kaleak zeharkatzeko, Erriberako Merkatura bisitatzeko edo Marzana kaian dauden tabernetan txakolina eta pin-txoak dastatzeko.

Ingelesen Landa

Athletic Cluba existitzea, neurri handi batean, Ingelesen Landari zor zaio, XII. mendetik 1908. urtera arte Bilboko Itsasadarren ezkerraldea hartzen zuen espazioari, alegia. Gaur egun **Guggenheim Bilbao Museoa**ren eta **Deustuko Zubiaren** arteko gunek berdeak hartzen du espazio hori, eta hainbat eraikin nabarmen daude bertan, besteak beste, **Iberdrola Dorrea**, **EHUko Paraninfoa** edota **Deustuko Unibertsitateko Liburutegia**. Han bertan **Oroimen pasealekua** dago eta bertan artista garaikide garrantzitsuen eskulturak daude aire librean, tartean Tucker, Chillida edota Dalí artistenak.

Ingelesen Landa hilerri britainiar bat zen, baina Bizkaiko industrializazioan zehar hainbat modutan erabili zen, baita futbol zelai modura ere. Han, Bilbora itsasontziz iristen ziren marinel ingelesenek futbolearen jokatzeko zuten, hain zuzen ere ordura arte hirian ezezaguna zen kirol hartan. Horrela sortu zen kirol honen inguruko zaletasuna.



Abandoibarra

Koronazio Koparen iturria Jado plazan

Hiriaren bihotzean, Bilboko Zabalgunean, hiru lehoik zaindutako iturria daukagu. Baina xehetasuna ez dago hor, baizik eta iturriaren erdigunean, talde zuri-gorriak 1902an irabazi zuen Koronazio Koparen garaikurraren antza handia baitu.


Bisitatzeko eta Athletic Clubari buruz zerbait gehiago jakiteko leku aparta da, inguruko tabernetan txakolin bat dastatzen duzun bitartean, ardo zuri gaztea, fruta usainekoa eta aberatsa arometan, begietatik sartuko zaizkizun pintxoekin lagunduta.



Jado plaza

Begoñako basilika

Bilboko Aste Nagusian, **kluba Begoñako basilikara joaten da Andre Maria omentzeko** eta denboraldi hasieretan Athletic Clubeko taldeei indarra eta babesa ematea eskatzeko. Belaunaldiz belaunaldi transmititutako herentzia da, legatua, eta klub barruan dagoeneko tradizio ere bihurtu da.



Begoñako basilika

Ibaigane jauregia

Ibaigane jauregia hiriko euskal estilo berriko eraikin adierazgarrienetako bat da, eta, orain, **Athletic Club taldearen bulegoak eta egoitza ofiziala hartzen ditu**. Hiru etxebizitzako higiezin hau Bilbo erdigunean dago, Mazarredo zumarkalean, Guggenheim Bilbao Museotik metro gutxira. Bisitatzeko eta Athletic Clubari buruz zerbait gehiago jakiteko toki on bat da.



Ibaigane jauregia

Jai giroa

NOLA BIZI DA PARTIDA EGUN BAT?

28

Partida egunetan Bilbo jai gune izugarria izaten da, eta futbol zelaiaaren inguruko kaleak zalez lepo egoten dira, tartean **García Rivero** edo **Poza Lizentziatuaren** kalea eta **Zazpi Kaleak**. Horrelako lekuetan, zale zuri-gorriek topaketa aurreko uneen giroa sentitzen dute kuadrilla eta familiarekin poteoan (taberna batetik bestera joatea ardoak edaten) eta pintxo zoragarriak dastatuz. Zalantza izpirik gabe, futbol jardunaldiari ekiteko modu ezin hobea da.

29

Athletic Clubaren lagun taldeak edo *peñak*

Athleticzaleak munduan barrena

30

Zalerik gabeko futbol talde bat ez da ezer. Nonahi daudela taldearen ezkutua bularrean harrotasunez erakusten duten pertsonak dira, tokia edo distantzia zein den axola gabe.

Eta arlo horretan Athletic Clubek babes handia du, hain zuzen ere peña edo lagun taldeei esker. Orotara 470 talde dira eta erakunde zuri-gorriak munduan tartetxo bat izatea eta klub are handiagoa izatea lortzen dute.


Peña ofizialen kopuru osotik 256 estatuan daude eta 156 Bizkaian. Euskal Herriko gainerako eremuetan Athletic Clubek, guztira, 47 elkarte ditu, eta beste 11 atzerrian daude (Argentina, Belgika, Kolonbia, Kuba, Estatu Batuak, Frantzia, Italia, Japonia, Mexiko, Erresuma Batua eta Venezuela).



31



Athletic Club taldearen *peña* ofizial guztiak



Athletic Clubaren koloreak BLACKBURNETIK SOUTHAMPTONERA

Athletic Club taldearen bereizgarrietako bat kolore zuri eta gorria izan dira, baina, ba al zenekien garai batean azal zuri-urdina izan zuela? Ibilbidearen hasieran, 1910. urtera arte, taldeak bi zatiko elastikoa janzten zuen, zuria eta urdina, Blackburn Rovers talde ingelesaren koloreetan inspiratua. Harik eta 1909. urteko Gabonetara arte, Juan Elorduy jokalaria Britainiar uharteetara joan zen arte.

Taldeak 50 elastiko erosteko enkargua egin zion jokalaria, han kalitate hobekoak baitziren. Southamptonen ezin izan zuen elastiko zuri-urdinik aurkitu eta, azken saiakera gisa, esku hutsik ez bueltatzeko, klub horretako elastikoak erostea erabaki zuen, kolore gorri eta zuriaekin. Harrezkero, Athletic Clubaren azala zuri-gorria izan da.



NORTASUNA diren produktuak

Athletic Club taldea maite eta jokalaria gogokoenen moduan jantzi nahi dutenek klubaren produktu ofizialen eskaintza zabala dute, denda fisikoan zein online.

Kirol arropa, moda artikuluak edota osagarriak, bufanda bat zein telefonorako zorroa, erlojua edota diru zorroa, helduentzat zein haurrentzat. Horrez gain, klubak animalientzako hainbat produktu ere eskaintzen ditu.



Lehen ekipazioa



Bigarren ekipazioa



Atezainaren ekipazioa

Kalean bertan

Sartu Athletic Clubaren denda batean eta jantzi kolore zuri-gorriekin Athleticen benetako zale bihurtzeko. Denda askotan denda bisitatu eta talde zuri-gorriaren ekipazioak erosi ahalko dituzu. Ez ahaztu: dendarik handiena **San Mames futbol zelaian dago, 0-26 atean artean**. Halaber, Bilbon bertan ere, denda bat dago Zazpi Kaleetako **Bidebarrieta kalean**, beste bat **Errekalde zumarkalean** eta beste bat **Mazarredo zumarkaleko 65. zenbakian**, Guggenheim Bilbao Museoaren alboan. Azkenik, **Barakaldoko Max Center gunean** beste denda fisiko bat dago.



Mazarredo zumarkaleko denda



A
GOOD
!
IDEA

Internetetik etxera

Opari bat egin nahi baduzu eta Bilbon ez bazaude, erraz egin dezakezu taldearen webgunetik.

Halaber, Athleticen "Click and Collect" aukera ere jarri du bezeroen esku, hain zuzen ere eskaera bat online egin eta, ondoren, klubaren edozein denda ofizialetan jasotzeko.



MEETING & ENJOY

Iparra

36

Iparaldeko kornerra


Zure ekitaldiari izaera berezia eman nahi badiozu eta topaketa gogoangarria izatea nahi baduzu, haxe da behar duzun tokia, San Mames horretarako pentsatu baitzen, enpresa bilera, ekitaldi edo biltzarrak munduko kirol eraikinik onena gisa katalogatutako agertoki handi honetan egiteko eta gozatzeko. Athletic Club taldeak edozein ekitaldi antolatzeke instalaziorik onenak jarriko ditu zure esku, **6.000 m2-ko azalera baitu, zelaiko erdiguneko eratzunean banatuta.**

Toki ezin hobea da Athletic Clubaz, taldearen historiaz eta tradizioaz gozatzeko, futbol zelaiaaren ikuspegi paregabea izanik. Entzunaretoan besaulki altxagarridun sistema dago eta, horri esker, espazioa erosotasunez konfiguratu daiteke; horrez gain, hainbat pantaila daude xehetasunik ez galtzeko, sofa zabalak, tabernak eta zerbitzu gastronomikoa. Enpresa topaketa berezietarako irtenbide bikaina da.

Ekialdea

37

Hegoaldea

San Mames **VENUE**

38

1. solairua -2. solairua
0. solairua 4. solairua

sanmames.athletic-club.eus/eu/aretoak

San Mames, Bilbao Bizkaiaren nazioarteko erreferenteak, erabat ekipatutako hamar espazio ditu, mota askotako ekitaldiak bertan antolatzeko. Leku erakargarriak dira, eta bertan zeuk eta zeure bezeroek giro paregabeaz gozatu ahalko duzue Athletic Club taldearen indarra, inplikazioa eta pasioa zelaiko areto guztietan islatzen diren agertoki honetan.

Enpresako bilera bat, produktuak aurkezteko saio bat, estatu mailako zein nazioarteko biltzarrak, jardunaldi profesionalak, sari banaketa, motibazio edo prestakuntza jardunaldiak. Aukerak zeuk ezartzen dituzu.

5 HEGOALDEKO KORNERRA

300 perts. - 315 m²

7 PRENTSA ARETOA

150 perts. - 263 m²

9 IKUS-ENTZUNEZKOEN ARETOA

30 perts. - 90 m²

6 BOULEVARD

3.000 perts. - 2.800 m²

8 ZONA MISTOA

150 perts. - 447 m²

10 SKY BOX

5 - 16 perts.

1 IPARRALDEA

700 perts. - 778 m²

2 EKIALDEA

200 perts. - 530 m²

3 HEGOALDEA

700 perts. - 778 m²

4 IPARRALDEKO KORNERRA

300 perts. - 612 m²

San Mames leku bikaina da Bilbon enpresa **ekitaldiak ospatzeko**, zelaiazen zerbitzuei, kokapenari eta funtzionalitateari esker, baita mota guztietako ekitaldiak antolatzeko duen gaitasunagatik ere: hitzaldiak, biltzarrak, lan bilerak, aurkezpen komertzialak, galak, sari banaketak eta urteurrenen ospakizunak, azokak, show room delakoak... Esparru paregabea da eta, hala, San Mames aliatu bikaina da orain inguruko zein nazioarteko enpresen interes estrategikoei dagokienez.

Zelaiak **6.000 metro koadro** baino gehiagoko edukiera du, eta tamaina desberdineko ekitaldiak har ditzake, 6 pertsonako bileretatik hasi eta 3.000 gonbidatu inguruko ospakizunetara arte.

Horrez gain, zelaiak zerbitzu osagarriak ere eskaintzen ditu, tartean aparkalekua, arropazaindegi zerbitzua, bisitak museora eta Stadium Tour ibilbidea, gastronomia Michelin izarrarekin saritutako Fernando Canales sukaldari bilbotarraren eskutik, merchandisina, etab.

San Mames ekitaldietarako egoitza berezi gisa posizionatzen ari da **lurralde merkatuan** eta **MICE merkatu** globalean, bertan nazioartean prestigioa duten ekitaldiak ospatu izanari esker, besteak beste, European Rugby Champions and Challenge Cups lehiaketako finalak; ekitaldi handien jarduera paraleloen egoitza ere izan da, esaterako The World's 50 the Best Restaurants egitasmoaren kasuan, edo Muse taldearen kontzertua ere egin izan da bertan; MTV European Music Awards sari banaketaren haritik antolatutako programazioko ekitaldi nagusia izan zen.

ROCK & GOL

Musikak Bilbao Bizkaia hartzen duenean ez dago San Mames baino agertoki hoberik melodia onenekin zuzenean goatzeko. Ia zortzi urteko ibilbidean, zelaia bi kontzertu jendetsu hartu izan ditu, hain zuzen ere Guns N' Roses taldearena eta MTV Music Week egitasmo barruan antolatutakoak.

Lehena 2017ko maiatzaren 30ean izan zen, eta Athletic Clubaren etxeak hartu zuen lehenengo rock kontzertu handia izan zen. 40.000 pertsona elkartu ziren bertan Axl Rosen duinuekin mugitu eta kantatzeko. 2018ko azaroan, Bizkaiko hiriburuak MTV Music astea hartu zuen eta San Mamesen 35.000 pertsona baino gehiago batu ziren Berri Txarrak, Crystal Fighters eta Musen musikarekin goatzeko.

QUIZ

Orain zeure txanda da, jolastera! Hona hemen Athletic Clubari buruz zerbait ikasi ote duzun jakiteko zenbait galdera; ez baduzu ezer ikasi, atera ezazu barruan daramazun ikertzailea eta aurkitu erantzun zuzenak.

Athleticpedia

1- Zein denboralditan irabazi zuen Athletic Clubak liga azken aldiz?

- a) 1975-1976 b) 1968-1969 c) 1983-1984 d) 1986-1987

2- Zein hiri britainiarretik ekarri zituen Athletic Clubek elastiko zuri-gorriak?

- a) Manchester b) Southampton c) Londres d) Sunderland

3- Zein da Athletic Club taldearen futbol zelaiaren ezizena?

- a) San Mames b) Coliseum c) Katedrala d) Monumentala

4- Athletic Clubeko emakumeen taldeak zein talderen aurka jokatu zuen bertaratze errekorra hautsi zuen partida?

- a) Bartzelona b) Real Sociedad c) Levante d) Atlético de Madrid

5- Zenbat palko daude San Mamesen?

- a) 33 b) 47 c) 50 d) 52

6- Zein urtetan estreinatu zen San Mames berria?

- a) 2013 b) 2014 c) 1913 d) 2012

7- Non daude Athletic Club taldearen kirol instalazioak?

- a) Bilbo b) Lezama c) Amorebieta d) Barakaldo

8- Faktoria zuri-gorriak zenbat talde hartzen ditu guztira?

- a) 14 b) 15 c) 20 d) 19

9- Zenbat lagun talde edo peña ofizial ditu Athletic Club taldeak?

- a) 357 b) 254 c) 470 d) 486

10- Zein musika taldek eman zuen San Mameseko lehen kontzertua?

- a) Berri Txarrak b) Guns N' Roses c) Muse d) Crystal Fighters

Erantzunak: 1-C, 2-B, 3-C, 4-D, 5-D, 6-A, 7-B, 8-D, 9-C, 10-B



Txikipedia

1- Zein koloreekin jantzen da Athletic Club?

- a) Beltza b) Urdina c) Horia d) Gorria eta zuria

2- Nola deitzen da Athletic Club taldearen futbol zelaia?

- a) Camp Nou b) San Mames c) Riazor d) Mestalla

3- Nola deitzen zaie Athletic Club taldeko futbolariak?

- a) Tigreak b) Perikitoak c) Kanarioak d) Lehoiak

4- Zenbat aldiz irabazi du liga Athletic Clubek?

- a) 8 b) 6 c) 9 d) 10

5- Zenbat aldiz jokatu du Athletic Clubek bigarren mailan?

- a) 3 b) 0 c) 1 d) 5

6- Zein jokalarik ez du jantzi Athletic Clubaren elastikoa?

- a) Aduriz b) Williams c) Sergio Ramos d) Muniain

7- Zein ontzitan ospatzen ditu Athletic Clubak lortutako tituluak?

- a) Yatea b) Gabarra c) Trainera d) Galeoia

8- Zein da San Mamesen aforoa?

- a) 53.331 b) 58.925 c) 43.899 d) 62.500

Erantzunak: 1-D, 2-B, 3-D, 4-A, 5-B, 6-C, 7-B, 8-A



TOPBILBAO

TOP deitzen diegu onenetan onenak direlako, bisitatu, dastatu, erosteko eta goatzeko moduko txokoak direlako. Ezinbestekotzat jotzen ditugun esperientzien bilduma da, hona zatozenezan bizi beharrekoak direlako. Apuntatu zeure programan eta etxera itzultzen zarenean kontatu.

BILBAO berriak harritu egingo zaitu

Begiratzuz gero hunkitu egingo zara; harrigarria irudituko zaizu hiria eraldatzea ekarri duen arkitektura abangoardista, *Guggenheim Bilbao* efektuaren barruan.



Izarrekin JATEA

Jatetxe askotan bertako eta benetako gastronomia bikainera hurbilduko zara, eta jatetxe batzuek, gainera, Michelin izarrak dituzte.



HONDARTZATIK metro batera

Bilbotik bertatik, metroa hartuz hainbat hondartza dituzu eskura, eguzkiaz goatzeko, paseatzeko edo surfa praktikatzeko, besteak beste. Ereagan, Arrigunagan, Sopelan edo Plentzian.



ERRIBERAKO merkatua

Lurreko zein itsasoko produktu eta espezialitateei dagokienez merkatu osatuena dela ezarri zuen Errekorren Guinness Liburuak, eta Europa mailako merkatu estali handienetako bat da.



PINTXOAK Zazpi Kaleetan

Betiko Bilbao ezagutzeko, gal zaitez Zazpi Kaleetan eta goza ezazu *pintxo* eta *txikitoekin*, beti bor-bor dagoen giroan.



CAMPO VOLANTÍN ETIK paseatzen

Itsasadarren beste ertzetik hiria ikustea plazer izugarria da, eraikin ederrak baitaude bertan.



Bizi ezazu AZKUNA ZENTROA (ALHONDIGA BILBAO)

Erabilera anitzeko kultura zentro eta Bilbao berriaren ikono, bertako sarrera eta konfigurazio berezia nahitaez bisitatu behar dira.



Erosketak egiteko LEKU PAREGABEA

Erdigunea, Zazpi Kaleak... Gaur egun Bilbao erakusleho handi bat da, eta diseinu preziatuak dituzten diseinatzaile berrien firmak aurkituko dituzu bertan.

Ikuspegi ederra ARTXANDATIK

Har ezazu funikularra mendi *bilbotarrenera* igotzeko eta goza ezazu handik ikusten den ikuspegi izugarriaz.



Hiria ITSASADARRETIK

Bilbao berri horren ikuspegi desberdinaz goatzeko itsasadarrean nabigatzea da aukerarik onena, eta horretarako hainbat aukera daude.



BILBAO TURISMOA
www.bilbaoturismo.net

BIZKAIA TURISMOA
www.visitbiscay.es

EUSKADI TURISMOA
www.turismo.euskadi.eus

NEKATUR/LANDA-TURISMOAK
943 327 090 - www.nekatur.net

TURISMO-BULEGOAK BILBAO

BILBAO TURISMO

-  Plaza Circular, 1 Edificio Terminus - 944 795 760
-  Alameda de Mazarredo 66 (Junto a Guggenheim Bilbao)
- Aeropuerto 944 031 444

BIZKAIA

BAKIO
946 193 395 - www.bakio.eus

BALMASEDA - ENKARTUR
946 802 976 - www.visitenkarterri.com

BARAKALDO BEC (Bilbao Exhibition Centre)
944 995 821 - www.visitbarakaldo.eus

BERMEO
946 179 154 - www.bizibermeo.eus

DURANGO
946 033 938 - www.turismodurango.net

ELORRIO
946 820 164 - www.visitelorrio.com

 GERNIKA-LUMO
946 255 892 - www.gernika-lumo.net

 GETXO
944 910 800 - www.getxo.eus/turismo

 GORLIZ
946 774 348 - www.visitgorliz.eus

KARRANTZA-HARANA
946 806 928 - www.karrantza.org

LEKEITIO
946 844 017 - www.lekeitioturismo.eus

MUNDAKA
946 177 201 - www.mundakaturismo.com

MUXIKA
946 257 609 - www.uramendi.org

ONDARROA
946 831 951 - www.ondarroa.eus

ORDUÑA
946 384 384 - www.ordunaturismo.com

OROZKO
946 122 695 - www.gorbeiaeusyadi.com

PLENTZIA
946 774 199 - www.visitplentzia.com

PORTUGALETE
944 729 314 - www.portugalete.org

 SANTURTZI
944 839 494 - www.visitsanturtzi.eus

 SOPELA
944 065 519 - www.turismoa.sopelaudala.org

SOPUERTA
946 104 028 - www.visitenkarterri.com

TRUCIOS - TURIZIOZ
946 560 079 - www.turtzioz.org

URDAIBAI-BUSTURIALDEA
946 257 069 - www.turismourdaibai.com

ZIERBENA (La Arena)
662 547 468 - www.zierbena.net

GARRAIOA

AIREPORTUA
Bilbao-Lolu - 913 211 000 (AENA)
www.aena.es

ITSAS BIDAIAK ETA FERRYA
Ferry Bilbao-Portsmouth 944 234 477
www.brittany-ferries.es

TRENAK
Abando Indalecio Prieto geltokia (Renfe)
Plaza Biribila 2 - 912 432 343- www.adif.es

EUSKOTREN
944 333 333 - www.euskotren.eus

Concordia geltokia; FEVE Bilbao
Bailen kalea 2 - 912 320 320
www.renfe.com

AUTOBUSAK
Bilbao Intermodal (Estación de autobuses)
Gurtubai 1 - 944 395 077 - www.bilbaointermodal.eus

Intermodaal (autobus-geltokia)
946 855 000 / 944 790 981
www.bilbao.eus/bilbobus

Bizkaibus (Autobusak, probintzia eta aireportua)
946 125 555 - www.bizkaia.eus

BILBOKO METROA
946 855 000 - www.metrobilbao.eus

TRANBIA
944 333 333 - www.euskotren.eus

TAXIAK
Radio Taxi Bilbao
944 448 888 - www.taxibilbao.com

Tele Taxi
944 102 121 - www.teletaxibilbao.com

Radio Taxi Nervión
944 269 026 - www.radiotaxinervion.com

BIZIKLETAK ALOKATZEKO ZERBITZUA
Bilbaobizi
946 564 905 - www.bilbaobizi.bilbao.eus

OROKORRA

LARRIALDIAK 112
INFORMAZIO OROKORRA 010
(Bilbao udalerri barruko deietarako)
944 010 010 (Bilbao udalerriatik kanpoko deietarako)

KIDEGO KONTSULARRAREN BULEGOA
944 706 426

HERRITARREN ARRETA
944 241 700

ERREPIDEI BURUZKO INFORMAZIO OROKORRA
011

GALDUTAKO GAUZAK
944 204 981 / 944 205 000

BILBOKO MUSEOAK

GUGGENHEIM BILBAO MUSEOA

www.guggenheim-bilbao.eus

ARTE EDERREN MUSEOA

www.museobilbao.com

ELIZBARRUTIKO ARTE SAKRATUAREN MUSEOA

www.eleizmuseoa.com

ITSASMUSEUM BILBAO

www.itsasmuseum.eus

ASTE SANTUKO PASIO IRUDIEN MUSEOA

www.museodepasosbilbao.com

BILBOKO ZEZENKETA MUSEOA

www.bilbao.bmfforos.com

MUSEO VASCO / EUSKAL MUSEOA

www.euskalmuseoa.eus

BERREGINEN MUSEOA

www.bilbokoberreginenmuseum.eus

ATHLETIC CLUB MUSEOA

www.sanmames.athletic-club.eus/museo

EUSKARAREN ETXEA

www.azkuefundazioa.eus

ARKEOLOGIA MUSEOA

www.bizkaikoa.bizkaia.eus

BIZKAIKO MUSEOAK

KOSTALDEAN

ARRANTZALEEN MUSEOA

Bermeo - www.bizkaikoa.bizkaia.eus

BUTROIKO PLENTZIA MUSEOA

Plentzia - www.museoplentzia.org

RIALIA INDUSTRIA MUSEOA

Portugalete - www.portugalete.org/es-ES/Rialia

SANTURTZI ITSASOA MUSEOA

Barco-Museo Agurtza - www.visitsanturtzi.eus

BASONDO

Urdaibako fauna basatiaren babeslekua, Kortezubi

www.basondo.com

BIZKAIA ZUBIA

Las Arenas (Getxo) /Portugalete

www.puente-colgante.com

URDAIBAI BIRD CENTER

Gautegiz-Arteaga - www.birdcenter.org

EKOETXEA URDAIBAI

Busturia - www.ekoetxea.eus

TXAKOLINGUNEA

Bakio - www.bizkaikoa.bizkaia.eus/txakolingunea

SANTA KATALINA ITSASARGIA

Lekeitio - www.lekeitioturismo.eus/es/

BARRUALDEAN

SIMON BOLIBAR MUSEOA

Ziortza-Bolibar - www.simonbolivarmuseoa.com

DURANGOKO ARTE ETA HISTORIA MUSEOA

Durango - www.museoak.bizkaia.eus

ENKARTERRIETAKO MUSEOA

Sopuerta - www.enkartermuseum.eus

EL POBAL BURDINOLA

Muskiz - bizkaikoa.bizkaia.eus

EUSKAL HERRIA MUSEOA

Gernika-Lumo - www.bizkaikoa.bizkaia.eus

GERNIKAKO BAKEAREN MUSEOKO FUNDAZIOA

Gernika-Lumo - www.museodelapaz.org

GERNIKAKO BATZAR ETXEA

Gernika-Lumo - www.gernika-lumo.eus

MEDIZINAREN ETA ZIENTZIEN HISTORIAREN EUSKAL

MUSEOA, "JOSE LUIS GOTI"

Leioa - www.ehu.eus

OROZKOKO MUSEOA

Orozko - www.orozkomuseoa.eus

EUSKAL HERRIKO MEATZARITZAREN MUSEOA

Gallarta - www.meatzaldea.eus

BALMASEDAKO HISTORIAREN MUSEOA

Balmaseda - www.visitenkarterri.com

BOINAS LA ENCARTADA MUSEOA

Balmaseda - www.bizkaikoa.bizkaia.eus

VALENTIN BERRIOTXOAKO MUSEOA

Elorrio - www.visitelorrio.com

LOIZAGA DORREA. ANTZINAKO AUTOEN ETA AUTO KLASIKOEN

MUSEOA

Galdames - www.torreloizaga.com

MUSEO MEMORIAL DEL CINTURÓN DE HIERRO

Berango - www.cinturondehierro.eus

ANTZASTI MUSEOA

Artaun Auzoa, 35, 48141, Dima

www.antzasti.eus - 628 32 22 75

ORDUÑA HIRIA MUSEOA

www.ordunahiria.org / 635 751436

KARPIN FAUNA

Fauna basatiaren harrera-zentroa. Karrantza

www.karpinabentura.com

HONTZA MUSEOA FUNDAZIOA.

Mañaria - www.hontzamuseoa.eus

IZENADUBA BASOA

Euskal parke mitologikoa. Olentzeroren etxea

Caserio Landeexo Góikoa Baserria (48100 Mungia)

olentzero@izenaduba.com - 946 740 061

www.izenaduba.com

DOLOMITAS FÁBRICA MUSEOA

Karrantza - visitenkarterri.com

KONTZEJU ZAHARRA INTERPRETazio ZENTROA

Markina Xemein - https://www.learitbaiturismo.com/es/hacer/

detalle/kontzeju-zaharra

NATURGUNEAK

URDAIBAI, BIOSFERAREN ERRESERBA

946 257 609 - www.turismourdaibai.com

946 870 402 (Ihobe) - www.ekoetxea.eus

GORBEIAKO PARKE NATURALA

946 122 695

www.gorbeiaeusyadi.com

URKIOLAKO PARKE NATURALA

946 814 155 - www.urkiola.net

ARMAÑONGO PARKE NATURALA

946 560 079 - www.visitenkarterri.com





bilbaoturismo.net
visitbiscay.eus



EUSKADI
BASQUE COUNTRY

BILBAO
BIZKAIA
be basque

